

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

**Enpleguak gora egin du aldi-
baterako lanpostuak sortuz**

**Prekarietate maila
oso kezkarria da**


**Langabezia tasa Europako
altuenetakoa da**

**Langabeziagatiko prestazioek
langabeen herena soilik
babesten dute**

**Langile klaseari bideraturiko
BPGaren zatia gainbehera doa**

Hego Euskal Herriko lan eta ekonomi egoeraren adierazleak (*)

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA			
Biztanleria okupatua	1.178.800	2016ko III. Hiruhilabetea	1.142.900
Partzialitate tasa	%16,0	“	%16,8
Emakumeak	%25,9	“	%28,2
Gizonak	%7,4	“	%6,9
Soldatapeko langileria	1.002.000	“	957.500
Behin-behinekotasun tasa	%24,5	“	%25,1
Emakumeak	%27,3	“	%27,9
Gizonak	%21,8	“	%22,6
Biztanleria langabea	171.700	“	181.600
Langabezia tasa	%12,7	“	%13,7
Emakumeak	%14,2	“	%14,1
Gizonak	%11,3	“	%13,3
Gazte langabezia tasa	%37,7	“	%39,2
Emakumeak	%42,1	“	%36,7
Gizonak	%33,2	“	%40,7
KONTRATUAK			
Egindako kontratuak	122.967	2016ko urria	117.281
Kontratu partzialak	47.980	“	46.902
Behin-behineko kontratuak	115.008	“	109.794
BPGaren URTEARTEKO HAZKUNDEA			
BPG EAE	3,0%	2016ko III. Hiruhilabetea	3,1%
BPG Nafarroa	2,9%	“	3,1%
BPG Europar Batasuna 28	1,8%	“	2,1%
KPIREN URTEARTEKO ALDAKETA			
KPI Estatu espainiarra	%0,7	2016ko urria	-%0,7
KPI Europar Batasuna 28	%0,5	“	%0,1
Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkie. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.			
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, Eurostat, INE, SEPE.			
2016/11/11an eguneraturiko informazioarekin.			
132. zenbakia Egoeraren azterketa 2016ko azaroa			



Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Enplegua eta afiliazioa
Gizarte Asegurantzaren 4
2. 2008an baino 142.000
pertsonek okupatu gutxiago 4
3. Kontratazioa: enpleguaren
errotazioa handitzen doa 5
4. Aldi-baterakotasunean
eta lanaldi murrizteko enpleguan
oinarrituriko prekarietatea. 6
5. Langabezia: emigrazioak
datuak apaintzen ditu 6
6. Emakume, gazte eta 55 urtetik
gorakoek egoera okerragoa
pairatzen dute 7
7. Langabeziagatiko prestazioak:
gero eta estadura murriztagoa . . . 8
8. Langabezia eta prekarietate
altuagoak ditugu Europarekiko
alderaketan 8

HILAREN PUNTAKO GAIA:

Langileei bideratutako BPGaren zatia gutxitzen dabil

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

EGOERAREN AZTERKETA

Sarrera

Hego Euskal Herriko lan arloaren egoerak azken hiru urteotako bide berean dirau: soilik aldi-baterako enplegua sortzen da, prekarietate maila kritikoa da, langabezia tasak Europar Batasuneko altuenetakoak dira, emakumeek diskriminazio bortitza pairatzen dute eta langile klasearen errentetara bideratzen den BPGaren zatia gero eta murriztagoa da. Honekin guztiarekin ezin da ontzat hartu egoera.

** Txosten hau 2016ko azaroaren 11an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*


Manu Robles-Arangiz Institutua
www.mrafundazioa.eus
Twitter: @mrafundazioa

Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

1. Enplegua eta afiliazioa Gizarte Asegurantzian

2016ko urrian 1.187.782 pertsona egon dira batezbestean Gizarte Asegurantzian afiliaturik Hego Euskal Herrian, urtebete lehenago baino 26.558 gehiago. Horietatik, 963.193k Erregimen Orokorrean kotizatu dutelarik (afiliazioan egondako hazkunde guztia kotizazio honen eragin du). Populazio Aktiboaren Inkestaren arabera (EPA deritzona gazteleraz), 2016ko hirugarren hiruhilekoan 1.178.800 pertsona egon dira enpleguarekin HEHn, aurreko urteko epe berean baino 35.900 gehiago. Horien artean, 1.002.000 soldatapeko enpleguak izan dira. Iturri honen arabera, urtebete lehenago baino 44.500 soldatapeko gehiago egon dira, norberaren konturako langile kopurua 8.600etan murriztu delarik.

Gizarte Asegurantzian afiliatutako eta biztanleria okupatuaren bilakaera Hego Euskal Herrian



Iturria: Gizarte Asegurantzia, INE


Aurreko grafikoak enpleguaren eta afiliazioaren bilakaera erakusten du Hego Euskal Herrian 2007 eta 2016 urteen artean (afiliazio datuak urrikoak eta okupazioarenak hirugarren hiruhilekoak izanik). Bertan islatzen denez, enpleguaren hazkunde ziklo baten amaiera eman zen 2008an, subprime krisiaren hasiera urtean; 2008 eta 2013 urteen artean enpleguaren suntsipen aro bat eman zen; horren ondoren, enplegua gora egiten hasi zelarik.

2. 2008an baino 142.000 pertsona okupatu gutxiago

EPA erreferentziatzen hartu ezker (nazioarteko konparaketak egiteko erabiltzen den estatistika delarik), aipaturiko krisia hasi baino lehen zegoen enplegu mailatik gaur egun oso urrun gaudela ondorioztatzen da. Zehazki, 2008an baino 142.000 okupatu gutxiago daude egun HEHn.

Hurrengo grafikoak, aurrekoaren antzera, 2007 eta 2016 urteen artean soldatapeko langileen eta Gizarte Asegurantzian Erregimen Orokorrean afiliaturiko langile kopuruaren bilakaera irudikatzen du HEHn, ziklo berberak islatuz. Salbuespen gisa 2008-2009 artean soldatapeko biztanleriaren jaitsiera bortitzagoa eman da edota berauen hazkunde handiagoa 2009-2010 artean.


Gizarte Asegurantzian Erregimen Orokorrean afiliaturiko langileen eta soldatapeko enpleguaren bilakaera HEHn



Iturria: Gizarte Asegurantzia, INE


Erkidegoka, afiliazioaren hazkunde gehiago eman da Nafarroan (guztira %2,6 egin du gora, Erregimen Orokorrean %2,9) EAEn baino (bertan igoerak %2,2 eta %2,8koak izan baitira, hurrenez hurren). Emakumeen afiliazioa gizonena baino gehiago hazi da bi erkidegoetan eta bi kasuetan, EAeko Erregimen Orokorrean izan ezik.

EParen arabera, azken urtean enplegu gehiago sortu da EAEn (%3,6, Nafarroan %1,5 izan delarik), baina soldatapeko enpleguaren hazkundera handiagoa izan da Nafarroan (%5,5, EAeko %4,4aren aurretik). Bi kasu eta erkidegoetan enplegu gehiago sortu da emakumeen artean gizonen artean baino.



Horri loturik, nabarmentzekoa da gero eta emakume kopuru handiagoak parte hartzen duela ordaindutako lanpostuetan; honekin, emakumeen ehunekoak era esanguratsuan egin du gora biztanleria okupatuan, soldatapekoan, afiliazio osoan eta Erregimen Orokorrean afiliaturikoan 2009 eta 2016 artean. Orotara, bi eta lau ehuneko artean hazi da epe horretan emakumeen parte hartzea ordaindutako enplegu mota guzti horietan, beheko grafikoan erakusten denez.

Emakumeen ehunekoak biztanleria okupatu eta soldatapekoan (3. hiruilekoak), afiliazio osoan eta Erregimen Orokorreko afiliazioan (urrikoak) HEHn




Iturria: Gizarte Asegurantza, INE

3 Kontratazioa: enpleguaren errotazioa handitzen doa

2016ko urrian 122.967 kontratu egin dira Hego Euskal Herrian, aurreko urteko hilabete berean baino %4,8 gehiago. Horietatik, 115.008 aldi-baterako kontratuak izan dira (%93,5) eta 47.980 lanaldi murriztekoak, urtebete lehenagoko datuen ia berberak izanik (%93,6 eta %40 izan baitzen orduan, hurrenez hurren). Kontratazio kopuru hau azken hamar urteotako altuena izan da, aldi-baterakotasun eta partzialitate mailak ere altuenetakoak izan delarik. Ondorengo grafikoan azaltzen da aipaturikoa.

Hego Euskal Herrian egindako kontratu kopuruaren eboluzioa urrian eta horien aldi-baterakotasun eta partzialitate maila 2007 eta 2016 artean



Iturria: SEPE

Grafikoan ikuskatzen denez, 2007ko urria eta 2011koaren artean kontratazioa murriztu egiten da, igoera txiki batekin 2010ekoan. Ondoren, hazkunde epe bat hasten da 2016ko azken datura arte.

Aldi-baterakotasun tasa epealdi osoan %90etik gorakoa da, enplegua sortzen den urteetan are altuagoa delarik. Horrela, kontratazioan ematen den aldi-baterakotasuna era esanguratsuan hazten da 2012 eta 2013 urteen artean, 2014az geroztik %93,6aren baitan egonkortuz.

Partzialitate mailak pixkanaka hazteko joera azaltzen du aztertutako epealdian: 2007 eta 2011 artean kontratuen herena mota hauetakoak izatetik 2012-2016 urteen artean bostetik bira handitzen baita 2012az geroztik, 2014an ia bitik bateko markara iritsiz.

Erkidegoka, 2016ko urrian 90.670 kontratu egin dira EAEn (urtebete lehenago baino %5,3 gehiago) eta 32.297 Nafarroan (%3,6 gehiago). Aldi-baterakotasuna altuagoa izaten ari da 2013az geroztik (urte hartan %95ekoa izan zen) eta 2016ko urrian %96,4an kokatu da, EAEn %93,1 izan delarik. Aldiz, urriko partzialitatea altuagoa izaten ari da EAEn, 2013an ezik: azken urtekoan %41,2koa izan da, Nafarroan %33koa izan delarik.

Esanguratsua da kontratazioan ematen den partzialitatea oso ezberdina dela sexuen arabera: emakumeen kasuan egiten zaizkien kontratuen erdia baino gehiago lanaldi murriztekoak dira, gizonenean lautik batekoa den bitartean.

4. Aldi-baterakotasunean eta lanaldi murrizteko enpleguan oinarrituriko prekarietatea


HEHn 2016ko hirugarren hiruhilekoan biztanleria okupatuaren %16ak jardunaldi murrizteko enplegua eduki du: Nafarroan %15,5ak eta EAEn %16,2ak. Ehuneko hau txikitu egin da aurreko bi urteekin alderatu ezker (2015eko hiruhileko berean %16,8koa izan zen), baina 2007-2016 epealdiko gainontzeko urte guztietako kopuruaren gainetik kokatu da.

Bi erkidegoetan, emakumeek gizonek baino partzialitate tasa altuagoa pairatu dute: 4,4 aldiz handiagoa Nafarroan eta 3,3 aldiz handiagoa EAEn. Hego Euskal Herrian lan egiten duten emakumeen %25,9 lanaldi partzialean dabilta, gizonen kasuan %7,4 dabiltzalarik.

Aldi-baterakotasunari dagokionez, soldatapeko lana dutenen %24,5ak kontratu tenporala du HEHn, Nafarroan ehuneko altuagoa delarik (bertan %24,9 dabil horrela lanean, EAEn %24,4 dabilelarik). Tenporalitate tasak behera egin du aurreko urtearekin alderatu ezker (orduan %25,1ekoa izan baitzen), baina subprime krisia hasi zenetik dagoen hirugarren datu altuena da.

Aldi-baterakotasun gehiago pairatzen dute emakume soldatapekoek, %27,3ak horrelako kontratuekin egiten baitu lan (gizonen kasuan %21,8ak). Emakumeek pairatzen duten diskriminazioa bi prekarietate mota hauetan ondorengo grafikoan dago islaturik.

Gizon eta emakumeen aldi-baterakotasun eta partzialitate tasak 2016ko 3. hiruhilekoan Hego Euskal Herrian



Iturria: INE


Kontratatzailearen jabegoa aztertu ezker, deigarria da sektore publikoan dagoen aldi-baterakotasuna (%30,2) sektore pribatuan dagoena (%23,2) baino altuagoa izatea. Hori horrela izan da 2007-2016 epealdiko hirugarren hiruhileko guztietan Hego Euskal Herri mailan. Kasu honetan ere emakumeek diskriminazio gogorra pairatzen dute bai sektore publikoan (%36,2ko tenporalitatea dute gizonen %20,5aren gainetik) eta baita pribatuan ere (%24,6ko aldi-baterakotasunarekin, gizonen %22,1 dutelarik).

5. Langabezia: emigrazioak datuak apaintzen ditu


EPAk egindako inkestaren arabera, 2016ko hirugarren hiruhilekoan HEHko langabezia 171.700 pertsonatan estimatzen da: 38.400 Nafarroan eta 133.300 EAEn. Estimazio hau urtebete lehenago egindakoa baino 9.900 baxuagoa da: langabeziaren murrizte horren heren bat Nafarroako joerari dagokio eta beste bi herenak EAEkoari.

Urriko datuen arabera, langabezian izenemandako pertsona kopurua 179.877koa izan da Hego Euskal Herrian, 2015eko urrian baino 16.718 gutxiago. Horietatik 141.181 EAEn egon dira izenemanda eta 38.696 Nafarroan; langabeziaren urtearteko murrizketaren bostena Nafarroako joerak eragin du, beste lau bostenak EAEkoak eragin dituelarik.

Ondorengo grafikoak langabeziaren joera erakusten du: 2007 eta 2013 artean langabeen kopurua handitu zen, gero beheranzko norabidea izanik. Grafiko hau enpleguaren grafikoaren kontrakoa da, 2007 eta 2008 artean izan ezik: orduan langabeziak gora egin zuen enplegua sortu bazen ere.



Langabezian erregistratutako pertsonak urrian eta biztanleria langabea hirugarren hiruherilekoan HEHn



Iturria: SEPE, INE

Langabezia handitu egin da 2008tik 2016ra arte 78.000 pertsonatan, suntsitu den enpleguaren (142.000) erdia baino pixka bat gehiago izanik. Hau biztanleria aktiboaren murrizketagatik eman da, hein handi batean Euskal Herriatik emigratu duten milaka pertsonen eraginez. Efektu hori ez balitz eman, langabezia tasa gaur egun dagoena baino are altuagoa izango litzateke.

6. Emakume, gazte eta 55 urtetik gorakoek egoera okerragoa pairatzen dute

Langabezia adinaren arabera aztertuz, 2016ko hirugarren hiruherilekoan 27.500 gazte langabe egon dira (25 urte baino gazteagoak) eta 21.400 nagusi (55 urtetik gorakoak) Hego Euskal Herrian. Bi adin talde horietan langabezia kopuruak gora egin du aurreko urtearekin alderatuz: iaz baino 1.000 gazte langabe gehiago egon dira 2016an eta 55 urtetik gorako 3.400 gehiago. Bigarren kasu hau kezagarria da oso, 2007-2016 epealdiko hirugarren hiruherileko datu okerrera baita 55 urtetik gorakoek langabe kopurua.

Sexuaren arabera, emakumeek gizonek baino langabezia handiagoa pairatzen dute: Hego Euskal Herri mailan ia 10.000 emakume gehiago daude gizon baino langabe. Adinaren arabera, 2.500 emakume gazte gehiago daude langabe gizon gazteak baino, eta 55 urtetik gorakoek kasuan 3.100 emakume langabe gehiago daude gizon langabeekin alderatuz.


Langabezia tasari dagokionez, 2016ko hirugarren hiruherilekoan %12,7an kokatu da HEHn, urtebete lehenago baino ehuneko puntu bat baxuago. Lurraldeka, langabezia tasa altuagoa dago EAEn (%12,8) Nafarroan baino (bertan %12,4 baita).

Adin taldeka, gazte langabezia tasa %37,7koa izan da HEHn, EAEn Nafarroan baino askoz ere altuagoa izan delarik (%39,7 lehenenean eta %32,7 bigarrenenean). Kolektibo honek pairatzen duen langabezia tasak behera egin du azken urtean ehuneko puntu eta erdian.

55 urtetik gorakoek langabezia tasa %9,2koa izan da HEHn, altuagoa izanik Nafarroan (%10) EAEn baino (%9). Azpimarratu beharra dago azken urtean gora egin duela adin talde honek jasaten duen langabezia tasa bi erkidegoetan, 2015eko hirugarren hiruherilekoan %8,3koa izan baitzen HEHn (%9,1ekoa Nafarroan eta %8koa EAEn).

Langabezia tasak emakumeak kolpatzen ditu gizonak baino gehiago. Maila orokorrean, Hego Euskal Herriko emakumeek pairatzen duten langabezia tasa %14,2koa izan da, gizonek jasaten dutena baino ia hiru ehuneko puntu altuagoa. Gazteen eta 55 urtekoen artean emakumeekiko diskriminazioa are altuagoa da langabezia tasari dagokionez: ia bederatzi ehuneko puntu gehiagoko langabezia baitute emakume gazteek eta 4,6 puntu altuagoa emakume nagusienek.

Gizon eta emakumeen langabezia tasak HEHn 2016ko 3. hiruherilekoan



Iturria: INE

Epe luzeko langabezia, egoera horretan urtebete baino gehiago daramaten pertsona kopurua, 98.000 lagunekoa izan da Hego Euskal Herrian 2016ko hirugarren hiruherilekoan: 19.400 Nafarroakoak eta 78.600 EAekoak. Horrek esan nahi du langabezia egoeran egon diren pertsonen %57,1ak urtebete baino gehiago daramala lan

egin nahian eta ezinean; ehuneko hori %59 da EAEn eta %50,5 Nafarroan.

Epe luzeko langabeziak gora egin du azken urtean (2015eko hirugarren hiruhilekoan %56,8 zen) eta 2007-2016 epealdiko bigarren datu okerrera da hirugarren hiruhileko baterako 2014koaren ondoren (orduan epe luzeko langabezia %64,1 izan zen).

Zehaztu beharra dago epe luzeko langabeziak nabarmen egin duela gora azken urtean emakumeen artean (2015eko hirugarren hiruhilekoan %51,1 zen), gizonen artean behera egin duen bitartean (orduan %62 zen). Bilakaera horrek gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna deuseztatu du epe luzeko langabeziari dagokionez, bien epe luzeko langabezia %57 inguruan kokatuz.

7. Langabeziagatiko prestazioak: gero eta estaldura murriztagoa


Langabeziagatiko prestazioen estaldura mailak behea jo du Hego Euskal Herrian: 2016ko urrian langabeen %37,7ak soilik jaso du prestazioen bat bere langabe egoeratik. Langabeziagatiko prestazioen lege estaldura murrizta gutxitzen ari da azken urteotan eta, horren eraginez, horietara bideratzen den diru-kopurua gero eta txikiagoa izaten ari da: 2015eko urriarekin alderatu ezker, 2016koan 11,5 milioi euro gutxiago bideratu dira, 83,3 milioi izatetik 2015ekoan 71,8 milioi izan baitira 2016koan (%13,9ko murrizketa, beraz).

Grafikoak islatzen du 2009 eta 2016 artean langabeziagatiko prestazioetan gastatu dena Hego Euskal Herrian urte bakoitzeko urrian; baita gastu hori langabeen zein ehunekok jaso duen ere. 2009an langabeen %65 babesten zituzten langabeziagatiko prestazioek eta geroztik murrizten joan da estaldura maila.

Gastuari dagokionez, prestazio mota guzti hauetara bideraturiko diru-kopurua 2016ko urrian 2012ko hilabete berean gastatutakoaren ia erdia izan da (orduan 139,3 milioi euro bideratu baitziren).

Hartzaileko batezbesteko gastua %19 murriztu da 2009 eta 2016 urteen artean, 1.275,45 eurotik 1.038,78 eurora gutxitu baita.

Guztira langabeziagatiko prestazioetara bideratutako gastua eta beraien estaldura langabezia erregistraturiko biztanlerian HEHn urrian




Iturria: SEPE

Langabeko batezbesteko gastua are gehiago murriztu da epealdi horretan: %53 hain zuzen, 829,19 eurotik 391,60 eurora txikitu delarik. Honen atzean bi faktore nagusi daude: gero eta langabe gehiago daude prestaziorik jaso gabe eta prestazioen batezbesteko kopurua murriztu egin da.

8. Langabezia eta prekaritate altuagoak ditugu Europarekiko alderaketan


28 estatuen Europar Batasuneko batezbesteko datuak erreferentzia bezala hartu ezker (argitaraturiko azken datuak 2016ko bigarren hiruhilekoak direlarik), Hego Euskal Herrian langabezia tasa, emakumeen langabezia, gazte langabezia tasa, 55 urtetik gorako langabezia tasa, epe luzeko langabezia tasa eta aldi-baterakotasun tasa altuagoak daude; egoera hobea da soilik partzialitate tasari dagokionez.

Zehazki, grafikoak nabarmentzen duenez, 2016ko bigarren hiruhilekoan langabezia tasa HEHn Europan baino %44 altuagoa izan da (ia 4,4 ehuneko puntu gehiago): %12,7koa izan baita gurean eta %8,8koa Batasuneko batezbestekoa. Datu makalena gazte langabeziarena da, HEHko datua EB-28koaren bikoitza baita: %38,2 lehenean eta %18,7 bigarrenetan. 55 urtetik gorako langabezia tasa ia 3 ehuneko puntu altuagoa da



HEHn, epe luzeko langabezia EB-28n baino 12 puntu handiagoa delarik.

HEHko eta EB-28ko langabezia tasa, gazte langabezia, 55 urtetik gorakoen langabezia eta epe luzeko edo urtebete baino gehiagoko langabeziaren alderaketa 2016ko 2. hiruhilekoan




Iturria: INE, Eurostat

Prekarietate datuak oso kezagarriak dira bai HEHn eta baita EB-28n ere, gure herrialdeko aldi-baterakotasuna askoz altuagoa bada ere. Hego Euskal Herriko soldatapeko langileen %24,3k kontratu tenporalarekin egiten du lan (ia lautik batek, beraz), EB-28ko batezbesteko datua baino %70 gehiago (Batasuneko aldi-baterakotasuna %14,3 baita edo zazpitik batekoa).

Bestalde, partzialitate tasa oso antzekoa da bi lurralde eremuetan: HEHn %17,6 da eta EB-28n %19,6. Kasu honetan Europako batezbesteko datua HEHkoa baino bi ehuneko puntu altuagoa da. Guzti hau ondorengo grafikoak irudikatzen duelarik.

HEHko eta EB-28ko aldi-baterakotasunaren eta partzialitatearen alderaketa 2016ko 2. hiruhilekoan



Iturria: INE, Eurostat

Europar Batasuneko batezbestekoaren eta Hego Euskal Herriko datuen alderaketa oinarri hartuta, garrantzitsua da estatuen arteko klasifikazioan kokatzea gure herrialdeko egoera aipatutako aldagaietan:

- HEHko aldi-baterakotasun tasa EB-28ko hirugarren altuena da Polonia (%28,2) eta Estatu espainiarrekoaren (%25,8) ostean. Nafarroako emakumeen tenporalitatea EB-28ko altuena da; HEHko emakumeena hirugarren tokian kokatzen da Poloniakoaren ondoren.
- HEHko partzialitate tasa hamahirugarren okerrera da, EB-28ko eta Euroguneko batezbestekoetatik oso hurbil kokatuz.
- HEHko langabezia tasa (%12,7) laugarren altuena da Grezia (%23,3), Estatu espainiarra (%20,1) eta Kroaziaren (%13) atzetik.
- HEHan dagoen epe luzeko langabezia tasa (%59,8) EB-28ko bosgarren okerrera da Grezia (%72,1), Eslovakia (%60,6), Bulgaria (%60,4) eta Italiakoaren (%60) ondoren.
- HEHko gazte langabezia tasa (%38,2) EB-28ko hirugarren altuena da Grezia (%49,1) eta Estatu espainiarraren (%46,5) atzetik.
- 55 urtetik gorakoen langabezia tasa HEHan (%9,4) EB-28ko zazpigarren handiena da, Grezia (%19,3), Estatu espainiarra (%17,1), Txipre (%11,5), Portugal (%11,3), Eslovakia (%10,6) eta Kroazia (%9,6) okerrago dardelarik.




Langileei bideratutako BPGaren zatia gutxitzen dabil

Urtero sortzen den aberastasun monetario ofiziala, edo barne produktu gordina (BPG), atal ezberdinez osatzen da eta hainbat erataraz egin daiteke banaketa. Horietako batek hiru zati nagusitan sailkatzen du aberastasuna: langileen errentetara bideratzen dena, kapital soberakina eta zeharkako zergak ken subentzioak.

Aberastasunaren banaketaren bilakaera aztertzea ezinbestekoa da egungo ekonomia kapitalistan gertatzen dena ulertu ahal izateko, nortzuk irabazi eta nortzuk galtzen duten ikuskatzeko hain zuzen. Hurrengo grafikoan erakusten da hau, zehazki soldatapeko langileen errentak ordaintzera bideratzen den BPGaren zatiaren eboluzioa. EAEko datuak Eustatekoak dira eta Nafarroakoak eta Estatu espainiarrekoak INEkoak.

Langileen errentetara bideraturiko BPGaren zatiaren (%) bilakaera



Iturria: INE, Eustat

Grafikoak adierazten du EAEn soldatapeko langileen errentak ordaintzeko 2010ean BPGaren %49,2 erabili zela, 2015ean %46,7 bideratu zelarik. Horrela, 992,8 milioi euro gutxiago bideratu dira errenta hauetara epealdi horretan, BPG osotasunean 1.620,9 milioi eurotan hazi den bitartean.

Nafarroan, bestalde, beherakada are handiagoa izan da: 2010ean BPGaren %50,1 bideratu baitzen langileen errentetara eta 2014an (azken datua),

aldiz, %47,3. Gutxitzea, lurralde honetan, 809,9 milioi eurokoa izan da 2010-2014 epealdian, epe berean BPG orotara 11,2 milioi eurotan murriztu delarik.

Estatu espainiarrean murrizketa BPGaren %50,2 bideratetik 2010ean, %47,6 bideratzera izan da 2015ean. Epealdi horretan BPG osoa 5.274 milioi eurotan hazi da, baina langileen errentetara bideraturiko aberastasuna 29.914 milioi eurotan murriztu da.

Azken urteotan pairatzen ari garen eraso neoliberalak, besteak beste, langile klasearen aberastasun zatia murriztu egin du, 2010etik 2015era langileen aberastasuna %5 gutxiago izanik. Horren beste aldean, kapitalisten esku dagoen aberastasuna gero eta handiagoa da eta gero eta kontzentratuago dago esku gutxi batzuen menpe.

